



8890698

LUBERRI, OIARTZUNGO IKASGUNE GEOLOGIKOA FUNDAZIOA

ESTATUTUAK

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK


1. artikulua.- Eraketa, izena eta iraupena

- 1.- LUBERRI, OIARTZUNGO IKASGUNE GEOLOGIKOA FUNDAZIOA izeneko Fundazioa eratu da, ekainaren 17ko 12/1994 Legeak, Euskadiko Fundazioei buruzkoak, ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuak, Euskadiko Babesletzaren Araubideari buruzkoak, ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak, Euskadiko Fundazioen Erregistroari buruzkoak, eta indarrean dauden gainerako xedapenek diotena betetzen duena.
- 2.- Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde da, eta eratzaleek hala erabakita ondarea era iraunkorrean Estatutu hauetako 3. artikuluan azaltzen diren interes orokorreko helburuak gauzatzen bideratua dago.

2. artikulua.- Araubide Juridikoa, nortasuna eta gallasun Juridikoa

- 1.- Fundazioak nortasun juridiko propioa eta beregaina dauka eratze-eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen den unetik, eta jarduteko gaitasun juridiko osoa izango du, eta horren muga bakarra Fundazioaren eratze-ekintzan fundatzaileek agertzen duten borondatea -Estatutu hauetan agertzen direnak- izango du, eta edozein kasutan ere, aplikatu ahal izango zaizkion lege-xedapenek ezartzen dituztenak, bereziki ekainaren 17ko 12/1994 Legeak, Euskadiko Fundazioei buruzkoak, ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuak, Babesletzaren Araubideei buruzkoak, ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak, Euskadiko Fundazioen Erregistroel buruzkoak, eta indarrean dauden gainerako araubideen lege-xedapenek ezartzen dituztenak.

- 2.- Ondorioz, eta Babesletzari egingo zaizkion dagozkion komunikazio eta baimen-eskaeren kalterik gabe, edozein bideren bitartez erosil, gorde, eduki, erabili, besterendu ahal izango du eta ondasun higiezin eta higigarri eta eskubide guztiak zergapetu ahal izango ditu; era guztietako ekintzak edo kontratuak egin ahal izango ditu; mallegu hartzeak eta itzultzeak; onartu eta bide gobernuak edo judiziala hartzera guztietako egintzak gauzatuz Epaitegi, Auzitegi eta Erakunde publiko zein pribatuetan, indarrean antolamendu juridikoak xedatzen duenaren arabera.




3. artikulua.- Fundazioaren helburuak.

1.- Fundazioaren helburua da Oiartzungo, Oarsoaldeko eta, oro har, Euskal Herriko geologia, mineralogia, paleontologia eta natur zientziak ikertzea, zaintzea eta zabaltzea, eta, aldi berean, LUBERRI, OIARTZUNGO IKASGUNE GEOLOGIKOKO zentroan, Oiartzungo herrian (XXX), dauden harrien, mineralen eta fosilen bildumak, eta, halaber, argitalpenak, agiriak, kartografia, argazkigintzako materialak eta ikus-entzunezkoak kudeatzea.

2.- Helburu zabal horren barruan, jarduera jakin garrantzitsuenak eta lehenak ondorengo hauek izango dira:

- Oiartzungo Haranean, Oarsoaldeko bailaran, eta, oro har, Euskal Herrian eta lur-eremu geografiko horretatik kanpo dagoen ondare geologikoarekin zerikusia duten ikerlanak eta ikerketa-proiektuak gauzatzea, sustatzea edo babestea.
- Aipaturiko azterketa eta ikerketa horien zabaltze-programen garapena, eta, era berean, **JOSÉ ANGEL TORRES SÁENZ** jaunak sorturiko bildumarena.
- Oiartzunen Interpretazio Geologikoko Zentro-Museo bat abian jartzea eta berorren zabaltzea, aipatutako gai horren inguruan topaleku izan dadin eta helburutzat fundazioko objektuak lortzea izango duena.
- Jardunaldiak, hitzaldiak, mintegiak, biltzarak, ikastaro espezializatuak eta antzeko jarduerak antolatzea.
- Oiartzungo Haraneko, Oarsoaldea bailarako, eta, oro har, Euskal Herriko eta lurralde-eremu horretatik kanpoko ondare geologikoarekin eta paleontologikoarekin zerikusia duten tailerrak, laborategiak, garbiketa-lanak eta konponketa-lanak antolatzea.
- Ikustaldi gidatuak, hitzaldiak eta gainerako jarduera antolatzea.
- Argitalpenak, liburuak, aldizkariak, fitxa didaktikoak, inventarioak, ikus-entzunezkoak, informazio-panelak eta gainerako euskarriak editatzea aipaturiko ondare geologikoa eta paleontologikoa zabaltzearen.
- Ondare geologikoaren eta paleontologikoaren eta bioaniztasunaren ikerketa edo ezagutza sustatzeko bekak, laguntzak edo sariak bultzatzea.
- Aipaturiko lurralde-eremuetan ondare geologikoarekin eta paleontologikoarekin zerikusia duten beste erakunde batzuekin lankidetzako hitzarmenak egitea.
- Geologiaren, paleontologiaren eta bioaniztasunaren arloan Oiartzun estatuan zein nazioartean erreferente izan dadin lagunduko duten jarduerak gauzatzea.





8890699

- Fundazioaren helburuak lortzena bideratuak egon daitezkeen bestelako jarduera batzuk.

4. artikulua. Helburuen garapena

1.- Fundazioak eratzeko helburuak egoki iritzen dion moduan garatu ahal izango ditu, baita beste erakunde edo elkarte batzuekin lankidetzen ere. Estatutu hauek ezartzen dituen mugak bakarrik izango ditu, eta, edozein kasutan ere, aplikagari den arautegia.

2.- Fundazioak merkataritza eta Industri jarduerak egiteko gaitasuna izango du, hemen ondoren adierazten den moduan:

- Bere kasa, eratzeko helburuekin zerikusia duten jardueretan edo berorien zerbitzura daudenetan.
- Gainerako kasu guztietai, baziideen erantzukizuna mugatua duten elkarteetan parte hartuta.

5. artikulua.- Egoitza

Fundazioak Olartzungo **Pagoaldea Poligonoa 41-42, Ergolen Auzoa, 20180- Olartzun** helbidean izango du bere egoitza. Patronatuak egoitza soziala aldatu ahal izango du, baina Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko du. Halaber, Patronatuak eskumena izango du egoitzak, delegazioak edo bulegoak non kokatu erabakitzeko, horiek guztiak Fundazioa eratzeko helburuak betetzeko beharrizanetatik ondorioztatzen direnak.

6. artikulua.- Lurralde-eremuak


Fundazioak nagusiki Olartzungo eta Oarsoaldeko lurralde-eremuak garatuko ditu jarduerak. Aurrekoan uertzen da une jakin batuetan Euskal Herrian edo bestelako lurralde batuetan garatu ahal izango dituen kasuan kasuko egoerak barne, esparru horretatik kanpo gara ditzakeen jardueren kalterik gabe.

7. artikulua.- Onuradunak

1.- Fundazioak, interes orokorreko helburuen baruan, irizpide nagusitzat objektibotasuna eta inpartzialtasuna izango ditu onuradunak aukeratzeko orduan, eta ezin izango du inolako diskriminazioak egin.

2.- Alde horretatik onuradunak ondorengo pertsona-taldeak izan ahalko aira:

- Olartzungo Horaneko, Euskal Herriko eta beste lurralde-eremu batuetako ondare geologiko eta paleontologikoari buruzko ezagutzak eduki eta sakondu nahi dituzten ikastetxeetako ikasleak eta irakasleak.



- Hizpide dugun galaren inguruaren ezagutzak eduki edo sakondu nahi dituzten ikertzaileak.
 - Oiartzungo bizilagunak, turistak eta herria ezagutzen datoz gainerako bisitariak.
- 3.- Lehentasunak ezartzea Fundazioaren beraren egiteko izango da. Horrela, onuradunak zehaztea Patronatuak berak izendatzen duen hautaketa-organoaren egiteko izango da.

8. artikulua.- Publizitatea

Fundazioaren jarduerak balizko onuradunek eta interesatuek ezagut ditzaten, Patronatuak helburuei eta jarduerel buruzko publizitatea egingo du.

II. TITULUA.- PATRONATUA

1. KAPITULUA.- OSAERA ETA ESKUMENAK

9. artikulua.- Patronatua

Patronatua da Fundazioaren gobernu eta ordezkaria organo gorena eta bakarra, eta bere kargua izango ditu Fundazioa eratzeko kausa diren helburuak lortzeko behar diren zuzendaritza-eskumen guztiak eta baita kudeaketaren kontrola ere. Hain zuzen ere, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratuko ditu.


10. artikulua.- Osaera eta iraupena

Patronatua bost kidek osatuko dute. Patronatuko karguek denboran ez dute mugarik izango.

11. artikulua.- Patronatuko kideen izendatzea eta kargu-uztea eta hutsuneak betetzea.

1.- Lehen Patronatua eskritura fundatzailearen sortzaileak izendatuko du. Ondoren adierazten den osaera izango du:

- a) **JOSÉ ANGEL TORRES SÁENZ** jaunak, fundatzaile gisa. Bere karguak bizlarteko Izaera izango du. **JOSÉ ANGEL TORRES SÁENZ** jaunak bere ondorengo patronatu-kidea izendatzeko ahalmena izango du.





8890700

- b) **JOSÉ ANGEL TORRES SÁENZ** jaunak edo berorrek ahalmena ematen dion pertsonak notario aurrean patronatu-kide izateko izendatzen duen kide batek.
- c) **OIARTZUNGO UDALAK**. Patronatuan bi pertsonak eta bi botok ordezkatuko dutena. Persona horietako bat Alkatea izango da, eta izendatzen den beste pertsonak ez du nahitaez udal-zinegotzi izan beharko.
- d) **ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA** erakundeak izendatzen duen patronatuko kide batek.

JOSÉ ANGEL TORRES SÁENZ jaunak ez baldin badu patronatuko kiderik izendatzen, edo inori ez badio kide hori izendatzeko ahalmenik ematen. Patronatuak berak izango du pertsona izendatzeko ahalmen hori hutsunea bete ahal izateko.

2.- Patronatuko kideek kargua utziko dute:

- a) Heriotzagatik.
- b) Heriotza edo ezgaitasun aitorpenagatik.
- c) Patronatuko kidea izendatzen duen erakundeko nortasun juridikoa azkentzeagatik.
- d) Uko egiteagatik.
- e) Kasuan kasuko izendapena egiten duen pertsonaren edo erakundearen adostasunagatik.


3.- Hutsuneak edozein kausagatik sortzen direla ere, procedura berari jarraituz beteko dira, edo, bestela, Patronatuaren beraren adostasunagatik. Egoera hori ezin izango da 6 hilabete baino luzeagoa izan.

4.- Patronatu-kide izendatzen direnek berrialaz onartu beharko dute kargua Legearen 12. artikuluan aurreikusten den formuletako bat jarraituta. Onarpen hori Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da.

5.- Patronatuko kideek, hartzen dituzten erabakiak baliozkoak izan daitezzen, gutxienez eta ezinbestean osatu beharko dute Estatutu hauetako **25.1** artikuluan zehazten den gutxieneko kide-kopurua.

6.- Patronatuko Rideen eginkizun-gabetzea epaileak erabaki ahal izango du euren aurka erantzukizun-ekintza dagoenean, karguak Legean eta Estatutu hauetako **21**. artikuluan arautzen den arretaz ez betetzeagatik.

7.- Patronatuko kideen ordezkatzea, kargu-uztea eta **eginkizun-gabetzeak** Fundazioen erregistroan inskribatuko dira.



12. artikulua- Karguen doakotasuna

Fundatzaileak berrialaz hala xedatuta, gobernu-organoko kideek euren karguak doan ala ez gauzatu ahal izango dituzte, eta, edozein kasutan ere, euren egitekoak sorrarazten dizkien gastu justifikatuak ordainduko zaizkie.

13. artikulua- Fundazioaren zerbitzurako pertsonala

Fundazioak bere izenean eman ahal izango dio kudeatzaileta, kudeaketa edo bestelako jarduera batzuk gauzatzeko mandatua gobernu-organoko kideren bat, edo beste pertsona batzuel, eta egitekoari dagozkon ordainsari egokiak ordainduko dira.

14. artikulua.- Fundazioko Lehendakaria

1.- Patronatuko Lehendakaria **OIARTZUNGO UDALAREN** ordezkari eta duena izango da.

2.- Patronatuko Lehendakariak izango du aipaturiko gobernu-organoko ordezkartzarik handiena, eta berari dagozkio Patronatu-buruari atxikiak dauden eta Estatutu hauetan esleitzen zaizkion ahalmenak, Patronatuaren eta Fundazioaren beste organo batzuen erabakien ondorioz Fundazioa ordezkatu behar duen ekintza eta kontratu guztietan ordezkatzea, eta, era berean, izaten diren auzi, espediente, administrazio-arazo, gobernu, auzitegi, auzitegiz kanpoka arazoetan ordezkatzea, eta ahalmena izango du, halaber, aipatu diren helburuetarako ahalmenak emateko Prokuradoreei eta Abokatuei, Patronatua bere ekimenez deitzeko edo kideen herenak, gutxienez, eskatzen duenean, eztabaideak zuzentzeako eta erabakiak gauzatzeko.


15. artikulua.- Lehendakariordea

1.- Patronatuak kideen artean Lehendakariorde bat izendatu ahal izango du, batzarrean dauden Patronatuko kide gehienen aldeko botoaz hautatuko dena.

2.- Lehendakariordeak Lehendakaria ordezkatuko du hutsune, absentzia edo gaixotasuna duenean. Lehendakaria eta Lehendakariordea falta direnean, kiderik zaharrenak ordezkatuko ditu hainbat.

16. artikulua.- Idazkaria

Patronatuak, kideen artean edo kide ez direnen artean, Idazkari bat izendatu ahal izango du. Idazkariak Fundazioko lan administratiboak egingo ditu, dokumentazioa zainduko du eta batzaren Aktak egingo ditu, behin onartu ondoren, eta Lehendakariaren oniritziarekin, Akta Liburuan idatziko ditu.





17. artikulua.- Diruzaina

Patronatuak izendatu ahal izango du, kideen artean edo kide ez direnen artean, eta egoki irizten baldin badio, Diruzaina, beronek Patronatuak esleitzten dizkion egitekoak izango dituena. Diruzainari esleitu dakizkiokeen egitekoak ondokoak dira:

- a) Fundazioaren funtsak biltzea eta zaintza.
- b) Diru-sarreren eta gastuen balantzea aurkeztea eta sinatza.
- c) Inventario-liburuak eramatea, kontuak eta aurrekontuak eta eguneroko liburua.

18. artikulua.- Patronu-kide Delegatua


1.- Fundazioko patronu-kide delegatuak Fundazioko ohiko kudeaketari arreta eskaini beharko dio eta gauzatu egin behar du. Patronatuarekin lankidetzen jardun behar du egitekoetan eta Fundazioaren jarduerari jarraipena eman behar dio Patronatuko batzarren artean.

2.- Patronu-kide Delegatuaren ahalmenak Patronatuak erabakiko ditu.

19. artikulua.- Patronatuaren eskumenak

Patronatuaren eskumena Fundazioaren gobernuaren egiteko guztietara zabalduko da, eta, bereziki, ondoko gaietara:

- a) Fundazioaren nondik norakoak adieraztea helburuak hobeto betetze aldera.
- b) Jatorria edozein delarik ere, baliabide ekonomiko eta finantzario guztien administrazioa, erabilera edo kargaz arduratzea.
- c) Inventarioa, egoera-balantzea, emaitza-konfua, aurreko ekitaldiko memoria eta aipaturiko aldiko diru-sarrerak eta gastuak onartzea eta likidatzea.
- d) Hurrengo ekitaldiko diru-sarreren eta gastuen aurrekontua onartzea, baita azalpen-memoria ere.
- e) Egoki irizten diren barne-erregimeneko arauak onartzea.
- f) Patronatuko kideen kargu-uzteak eta izendapenak onartzea. Estatutu hauetan jasota dauden baldintzetan.
- g) Batzorde Delegatuak sortzea, horietako kideak izendatzea eta berorien ahalmenak zehaztea, baita ahalordetze orokorrak edo bereziak ematea ere, hurrengo artikuluan xedatzen denaren arabera.



- h) Zuzendaritza-karguko kideak, exekutiboak eta aholkulariak izendatzea, baita behar den gainerako pertsonalaren kontratazioa bideratzea ere.
- i) Era guztietako ekintzak eta kontratuak egitea eta onartzea, izaera zibilekoak, merkataritzakoak, lanekoak, administratibokoak edo beste edozein izaeratakoak, Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko harrela eskatzen duenean.
- ii) Jaraunspenak, legatuak edo dohaintzak onartzea ala ez onartzea, betiere Fundazioarentzat egokiak direla irizten denean, eta Babesletza jakinaren gainean jarrita.
- k) Fundazioaren Estatutuak aldatzea, fundatzailearen borondatea hobeto betetzeko beharrezkoa iritziko balitz.

20. artikulua.- Delegazioak, ahalordetzeak eta Batzorde Delegatuak


- 1.- Patronatuak kide bat edo batzuei eskuordetu ahal izango dizkie ahalmen guziak edo horietako batzuk, ondokoak izan ezik: kontuen eta aurrekontuen onespina, ohiko kudeaketatik haratagoko ekintzak edo Babesletzaren onespina behar dutenak, eta fundatzaileak edo Estatutu hauek berariaz debekatzen dituenak.
- 2.- Aurreko paragrafoan adierazi diren mugak kontuan izanik, Patronatuak Batzorde Delegatuak eta Exekutiboak eratu ahal izango ditu, unean-unean zehatztuko diren ahalmenak izango dituztenak, eta, era berean, ahalordedun orokorak edo bereziak izendatu ahal izango ditu, egiteko mankomunatuak edo solidarioak izango dituztenak.
- 3.- Delegazioak eta ahalordetze orokorak, nola eta ez diren auzietarako, eta ezeztatze-ekintzatarako, Fundazioen Registroan inskribatu behar dira.

21. artikulua.- Patronatuaren betebeharak

Fundazioren Patronatuko kideek ondoko betebeharak izango dituzte:

- a) Fundazioaren helburuak zorrotz betetzea eta betearaztea, Legeak eta Fundazioaren Estatutuek xedatzen dutenaren arabera.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea eta berorien produktibitateari eustea, kudeatzale on baten irizpide ekonomikoen eta finantzarioen arabera.
- c) Kargua arduraz betetzea, ordezkari leial gisa.

22. artikulua.- Nork bere burua kontratatzeko debekua





8890702

Patronatuko kideek ezin izango dute Fundazioarekin kontratatu, ez euren izenean, ez hirugarren baten izenean, Babesletzaren baimenarekin izan ezik.

23. artikulua.- Erantzukizuna

- 1.- Patronatuko kideek izango dute erantzukizuna Fundazioaren aurrean. Legeek xedatzen dituzten manuel jarraiki.
- 2.- Erantzukizunetik salbu geratuko dira hori sorratzetan duen akordioaren aurka agertzen direnak edo erabaki horretan parte hartzen ez dutenak, nola eta ez den frogatzen erabaki hori hartzeko asmoa zegoela eta ez zutela desadostasunik agertu.
- 3.- Fundazioen Erregistroan inskribatuko da, jurisdikzio arruntean, kasuan kasuko ekintzaren inguruan gobernu-organoek duten erantzukizuna eta egokitzen den epai irmoa.
- 4.- Babesletzak, bere ekinenez edo legezko interesa duen arrazoizko eskaeraren bitarte, gauzatu ahalko du erantzukizuneko ekintza hori. Era berean, ekintza hori gauzatu ahal izango du fundatzaileak Patronatuko kideen jarduera Fundazioaren helburuen aurkakoa edo helburuen kalterako denean.


2. KAPITULUA.- PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDUAREN ARAUBIDEA

24. artikulua.- Barne funtzionamendua

- 1.- Patronatuak gutxienez bi batzar egin beharko ditu urtean. Urte bakotzeko lehen seihilekoan bilduko da aurreko ekitaldiko likidazioak, inventarioa, jarduera-memoria, aurreko ekitaldiko egoera-balantzea eta emaitza-kontuak onartzeko. Estatutu hauetako 31. artikuluan arautzen denari jarraiki. Era berean, laugarren hiruhilekoan, dialekion batzar-dela eginda, hurrengo ekitaldiko aurrekontua onartu beharko du, eta oroitza-txostenarekin batera. Babesletzari igorriko dio abenduaren 31 baino lehen.
- 2.- Patronatuaren batzar-deiak idatziz egin beharko dira. Lehendakariak erabakita gai-zerrenda ere azalduko da batzar-deian, eta Patronatuko kideen iradokizunak ere kontuan izango dira. Batzarrerako dela batzar eguna baino 10 egun lehenago egin beharko da, presazko kasuetan izan ezik: horrelakoetan 3 egunetara ere murriztu baitaiteke epea.

25. artikulua.- Eraketa eta erabakiek hartzera

- 1.- Patronatua legez eratuko da lehen deialdian kideen erdiak baino gehiago, edo eurak ordezkatzen dituztenak, elkartzen baldin badira.



2.- Aurreko paragrafoan eskatzen den gutxieneko quoruma edo kide-kopurua bertaratzten ez baldin bada, Patronatua ordubete geroago bilduko da, eta bigarren batzarrean biltzen den kide-kopurua biltzen dela ere, nahikoa izango da, betiere bertan baldin badago Lehendakaria, Lehendakarlordea edo Idazkaria.

3.- Aurreko paragrafoetan adierazitakoari kolterik egin gabe, Patronatua eratutzat hartuko da eta legez eratuko da kide guztiak bertan direla eta denek aho batez batzarra egitea onartzen baldin badute.

4.- Erabakiak batzarrean dauden Patronatuko kide gehienen aldeko botoarekin hartuko dira, nola eta ez den ondoren adieraziko den kasuren bat:

- Estatutuak aldatzeko erabakia eta Fundazioaren bat-egitea eta azkentzea, Patronatuko kide aktiboen aldeko bota beharko dute, aho batez.
- Patronu-kide Delegatua izendatzeko akordioa, Patronatuko kide aktiboen bi herenen aldeko bota beharko duena.
- Fundazioak erosi edo eratu dezakeen bildumaren erabilera- edo karga-akordioa. Erabaki edo akordio horrek Patronatuko kide aktiboen aldeko bota beharko du, aho batez.

5.- Lehendakariaren botaak erabakiko ditu gerta daitezkeen berdinketak.


6.- Idazkariak Patronatuk egiten duen batzar bakoltzaren Akta egingo du, Lehendakariak eta Idazkariak sinatu beharko dutena. Akta horretan, honako hauetako guztiak jaso beharko dira:

- Batzarraren data eta tokia.
- Batzarrerako dela egiten den data eta modua, baita deitu diren pertsonen izen-abizenak ere.
- Deialdiaren testu osoa.
- Batzarrera bertaratzten diren Patronatuko kideen izen-abizenak, adieraziz nor agertzen eta nork ordezkatzen duen nor, eta era berean, Patronatuaren batzarra lehen deialdian edo bigarrenean egiten den.
- Hartzen diren erabakiak oso-osorik, onartuak izaten diren gehiengoak ere adierazi behar dira, eta berariaz eskatzen baldin bada, bota partikularak ere jaso egingo dira.
- Aktaren onesprena, batzarraren amaieran onartzen baldin bada.

III. TITULUA.- ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

1. KAPITULUA.- OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINTEZA

26. artikulua.- Fundazioaren ondarea





8890703

- 1.- Fundazioaren ondarea balorazio ekonomikoa egin dakizkiokoen ondasun- eta eskubide-mota guztiak eratua egon daiteke (bildumak, ondare dokumentala eta Fundazioari lagatako lokak).
- 2.- Fundazioa ekintzetan aplika dakizkiokoen xedapen eta administratziora mugatuko da, eta frituak edo errentak bere helburuekin bat datozen ekintzetara bideratuko ditu, hori guztia Estatutu hauek diotenarekin bat.
- 3.- Bereziki, zuzkidurakoak diren ondasunen eta eskubideen gaineko xedapenen edo karen ekintzak, edo zuzenean helburuetara atxikia daudenak edo urteko balantzetik ateratzen denean, balioa Fundazioaren aktiboaren ehuneko hogeia baino handiagoa denean, eta Legearen 22.2 artikuluak bere baitan hartzen dituen gainerako kasuetan, Patronatuari jakinazko zaio, gehienez ere hogei eguneko epean, beroriek formalizatzzen diren egunetik kontatzen hasita, Fundazioen Erregistroan ager dadin.

27. artikulua.- Bitartekoak

Fundazioaren ondarea osatuko dute:

- a) Fundazioko eskrituran jasota dagoen hasierako zuzkidurak, hor jasota daude bildumen titulartasuna eta balioa eta Pagoaldea Industrialdeko (Olartzen) 42 zenbakidun lokala, JOSÉ ANGEL TORRES SÁENZ jaun fundatzaileak erabilera-lagapenean utzak diren ondasunak, aldi baterako eta era berraztergarrian.
- b) Sortzaileen (eta atxikiena bere kasuan) ekarpenek eta kuotek, ohikoak eta apartekoak, eta Patronatuko kideek, eurek hala nahita, ordaindu nahi dituzten kuotak eta ekarpenak, ohikoak eta apartekoak.
- c) Etorkizunean Zuzenbidean onartzen diren bideen bitarbez eskuratzentz duen beste edozein ondosunek edo eskubidek, eta bereziki beste pertsona, erakunde edo elkarteko batzuek legatu, dohaintza, ekarpen edo subentzio gisa ematen dizkioenak. Dohaintzen, legatuen eta jaraunspenen onarpena Babesletzari adierazi beharko zaio.
- d) Ondarearen emaitzak edo errentak, produktuak edo etekinak. Fundazioak gauzatzentz dituen ekintzetatik lortuak, eta eskain ditzakeen zerbitzuen fruke jaso ditzakeen ordeinketetatik ateratzen dituenak, indarrean dagoen legeadiaren arabera.
- e) Aplikagarri den legezko beste edozein bitarteko.

28. artikulua.- Ondarearen aldaketak

Fundazioaren Patronatuak uneoro eta behar den guztietai, egoera ekonomikoak oholtzen duenaren arabera, Fundazioaren kapitalean aldaketak, eraldaketak edo bihurketak egin ahal izango ditu, helburutzat bakar

20110	urriaren 26ko
batzarraldian Udalak onartua.	
Idazkariak	
Galdakao Udalak	

bakarrik izanik Fundazioak, nahiz eta balio nominalari eutsi, une horretan ez dezan balio efektiboa edo erosteko ahalmenean murrizketarik izan.

29. artikulua.- Fundazioaren ondarearen zaintza

Fundazioaren ondarea zaintzeko eta babesteko ondoko arauak beteko dira:

- Fundazioaren ondarea osotzen duten ondasunak eta eskubideak Fundazioaren izenean eta, hala dagokionean, registro egokian inskribaturik, egongo dira ondasun bakoitzaren jabetza legitimoa eta titulartasuna berriaz islatuta (bildumak, dokumentazio-fondoa eta lokalak) erabilera-lagapenean utziak aldi baterako eta patronu-kide bakoitzak berraztertu dezakeena.
- Fundazioak eskuratzentzitzen dituen ondasun higiezinak eta/edo eskubide erreala, Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Patronu-kideek Fundazioari utzitako gainerako ondasunak edo jabetzak, aldi baterako erabilera berraztergarriko erregimenean, dagokien erregistroetan inskribatuko dira, bakoitzaren titulartasun legitimoa adierazita.
- Balioak eta dirua, jabetza-tituluak, gordailu-ordezkarigariak eta Fundazioa titularra dela egiatzatzen duen jabetza, erabilera, gozamen, jabari edo beste edozein eskubideren agiriak Patronatuak erabakitzentzen duen erakundeak gordailutuko dira, bietiere Fundazioaren izenean.
- Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak berak erabakitzentzen duen moduan zainduko dira.
- Ondasun eta eskubide horiek guztiak inventario-liburuan zehaztuko dira, Patronatuko Diruzainaren ardurapean egongo dena, izendatzen den kasuan, edo, bestela, Idazkarilaren ardurapean, eta beraren ikuskaritzapean, identifikatzeko eta deskribatzeko zehaztasun guztiak kontsignatuko dira.


2. KAPITULUA.- ERREGIMEN EKONOMIKOA

30. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa

1.- Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da eta urte naturalarekin bat etorriko da.

2.- Fundazioak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako aurrekontu arrunta egingo du, diru-sarrerak eta gastuak era orekatuan jasoko dituena.

3.- Aurrekontu hori Babesletzari aurkeztuko zaio onartzen den urtearen azken hiruilekoan, oroitza-txostenarekin batera.





8890704

31. artikulua.- Ekonomi eta Kontabilitate arloko betebeharak

Patronatuak egingo ditu inventarioa, egoera-balantzea eta emaitza-kontua, eta bertan jasoko da Fundazioaren ondare-, ekonomia- eta finantza-egoera. Era berean, urtean zehar egiten dituen jardueren eta ondarearen kudeaketa ekonomikoaren memoria egingo du, nahikoak izan beharko dutenak Fundazioaren helburuak eta legeek diotena ezagutzen eraten direla eta betetzen direla egiaztatzeko. Halaber, aurreko urteko diru-sarreren eta gastuen aurrekontuen likidazioa egingo du, eta, horretarako, Legeak xedatzen duena beteko du.

Inventarioan berariaz adieraziko dira Fundazioari uzten zaizkion ondasunen bakoitzaren eta guztien jabe edo titular legitimoak. Ondasun bakoitza balloetsi egin beharko da eta eranskin batean jaso. Eranskinean, zehatz-mehatz azalduko dira Fundazioari uzten zaizkion ondasunak eta erabilera-baldintzak.

32. artikulua.- Kontuak ematea eta auditoria

1.- Urte bakoitzeko lehen seihilekoaren barruan, Patronatuak justifikatu beharko dio Babesletzari, Legearen 27. artikuluan arautzen diren baldintzetan, kudeaketa egokia izan dela Fundazioaren helburuak betetzeko.

2.- Fundazioak kontuen kanpo-ikuskaritza urtean behin egin beharko du indarrean dagoen legeriak xedatzen dituen manuak betetzen direnean. Kasu horretan, kontuen auditoreen txostenak, gutxienez, ondokoak jaso beharko ditu:


- a) Kontabilitatean eta urteko kontuetan agertzen diren lege- edo estatutu- arauen hausteei buruzko ohartarazpenak, baldin baleude.
- b) Fundazioaren egoera finantzarioarentzat arriskutsu izan daitekeen, edozein gertaerari buruzko ohartarazpenak, horrela dela egiaztatu ondoren.
- c) Fundazioaren Patronatuko kideen balizko auto-kontratazioak daudela, zuzenean edo pertsona fisikoen zein juridikoen bitartez izan.

3.- Fundazioak nahitaez kanpo-auditoria egin beharra duenean, auditoria egiten dutenen txostena, auditoriaren inguruko kontuekin batera, Babesletzan aurkeztu beharko du Fundazioen erregistroan gordailatze aldera.

3. KAPITULUA.- FUNDAZIOAREN HELBURUEI HELEGITEAK JARTZEKO ARAUAK

33. artikulua.- Diru-sarreren helburua eta administrazio-gastuak.

1.- Fundazioaren ondasunak eta errentak era zuzenean edo berehalakoan sorrera-helburuak lortzera atxikiak daudela ulertuko da.



2.- Fundazioak aldiro-aldiro helburutako berrialzko jarduerak antolatuko ditu, eta, horretarako, urtero prestazioen plangintza egingo du, eta, era berean, nola egin eta nori esleitu erabakiko da.

3.- Helburuak lortzen bideratuko dira, lortzen den unetik kontatzen hasita hiru urteko epean, errenta garbien eta beste edozein kontzeptuengatik lortzen diren diru-sarreren %70, gutxienez, horiei, errenteit eta diru-sarrerei dagozkien zergak kenduta.

4.- Ondare-zuzkidura gisa egiten diren ekarpenak, eratzen den unean nahiz geroago egiten denean, betebehar hori betetzetik salbuetsita egongo dira.

5.- Gainerako diru-sarrerak fundazioko zuzkidura areagotzen bideratu beharko dira, administrazioko gastuak kendi ondoren (%20 baino gutxiagokoak, Fundazioak ondo arrazoituta bestelakorik eskatu eta Babesletzaren berrialzko baimena izan ezean) indarrean dauden lege-xedapenetan eta araudietan agintzen dena betez.

IV. TITULUA.- ESTATUTUEN ALDAKETA, FUNDAZIOAREN BAT-EGITEA ETA AZKENTZEA

34. artikulua.- Estatutuen aldaketa

1.- Fundazioaren Patronatuak Estatutu hauen aldaketa bultzatu ahal izango du, betiere eratzen direneko helburuak hobeto betetzeko egokia dela irizten dionean.


2.- Bestalde, Fundazioaren Patronatuak hasierako edo eratu zeneko Estatutuen aldaketa erabaki beharko du Fundazioa eratu zeneko egoeraren aldaketa dela-eta, helburua ezin duenean era egokian hasierako Estatutuen arabera bete, fundatzaileak Fundazioaren azkentzea aurreikusten duen kasurako izan ezik.

3.- Estatutuak aldatzeko erabakia, Patronu-kide aktiboen bi herenen aldeko botoarekin, gutxienez, hartu beharko da.

35. artikulua.- Fundazioaren bat-egitea.

Era berean, Patronatuak erabaki ahal izango du beste erakunde batekin edo batzuekin bat-egitea, betiere helburuei behar bezala erantzuten zaienean. Erabakia Patronatuko kide aktiboen aldeko botoarekin hartu beharko da, aho batez.

36. artikulua.- Fundazioaren azkentzea





8890705

Fundazioa azkenduko da:


- Kode Zibileko 39 artikuluan edo beste Lege batuetan arautzen diren inguruabarrik gertatzen direnean.
- Bat-egiteko prozesu baten ondorioz horrela gertatzen denean.
- Ebazpen judicial irmo baten ondorioz azkentzen denean.

37. artikulua. Azkentzeako prozedura.

- Aurreko artikuluko 1 eta 2 ataletan aurreikusten diren kasuetan, Fundazioaren azkentzeak Patronatuaren akordioa izan beharko du, eta, ondoren, Babesletzak onespain administratiboa eman beharko dio.
- Azkentzeako arrazoiaiak azkentze horren arrazoiaiak eman beharko ditu, Fundazioaren balantzearen berri, Likidatzaile gisara Patronatuaren jarduera-programarena eta likidazioko eragiketa horien ondorioz sortzen den produktuaren destinoarena.
- Patronatuaren akordiorik ez balego, edo erabaki hori Babesletzak berretsiko ez balu, Fundazioaren azkentzea ebazpen judicial arrazoituaren bitarte egin beharko litzateke.
- Azkentzeako akordioa, edo bere kasuan, ebazpen judicial arrazoitua Fundazioen erregerroan inskribatuko dira.

38. artikulua.- Fundazioaren likidazioa

- Azkentzeako akordioak, edo hala balegokio, ematen den ebaezpen judicialak amaiera emango die Fundazioaren ohiko jarduerei eta likidazioko ekintzen hasiera zehaztuko du.
- Likidazio-prozesuan dagoela, Fundazioak bere nortasun jurídikoari eutsi egingo dio, eta izenari "likidazioan" esaldia erantsi beharko dio.
- Fundazio azkenduaren likidazioa Fundazioaren Patronatuak egingo du Babesletzaren kontrolpean, horrek, Babesletzak, onartu beharko baitu. Horretarako, Fundazioaren Patronatuak egiten duen aktiboko edo likidazioko eragiketa bakoitzaren berri eman beharko dio Babesletzari.
- Likidazioko eragiketak amaitu ondoren, Fundazioaren Patronatuak likidazioko eskritura eman beharko du eta berori, onar dezan, Babesletzari igorri beharko dio. Likidazioko eskritura publikoak ondoko alderdiak jaso beharko ditu:
 - Fundazioaren Patronatuaren akordioa likidatzaile gisara, zeinaren bidez onartzen baitira likidazioko eragiketak, amaietako balantzea eta geratzen denaren destinoaren akordioaren exekuzioa.



b) Fundazioaren likidaziotik sorrarazten den geldikinaren helburuari buruzko idatzizko egiaztagiria.

5.- Fundazioaren likidaziotik sortzen diren ondasunak eta, bere kasuan, eskubideak, fundatzailearen borondatearen arabera, fundazioko eskrituran adierazia, Patronatuaren erabakiz, interes orokorreko Oiartzungo beste kultur erakunde bat emango zaizkio. Fundazioaren helburuen antzeko lanetan erabil ditzan. Fundazioak hori egingo ez balu. Babesletzak azkentzen den fundazioak dituen antzeko helburuetan jarduten duen beste fundazioren edo erakunderen bat emango dizkio. Lehentasuna herrikoek izango dute, edo bestela, Lurraide Historikoko erakundeek.

V. TITULUA.- BABESLETA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

39. artikulua.- Babesletza

Fundazio hau Babesletzaren tutoretza, aholku eta kontrolpean geratzen da indarrean douden Legeek eta Araudiek xedatzen dituzten baldintzefan.

40. artikulua.- Fundazioen Erregistroa

Fundazio honen eraketa, eta legez egin behar diren egintza edo negozio juridiko guztiak Fundazioen Erregistroan inskrivatuko dira, ekainaren 17ko 12/1994 Legeak, Fundazioen buruzkoak, ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuak, Babesletzaren Arautegiari buruzkoak, eta ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak, Euskadiko Fundazioen Erregistroari buruzkoak, diotenarekin bat etorri.


VI. TITULUA.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN ETA ERAKUNDE ATXIKIEN ARAUBIDE JURIDIKOA

40. artikulua.- Fundatzaile atxikiak.

1.- Eraztze-eskritura, Fundazio-Kartaren izaera duena, sinatu ondoren, beste pertsona fisiko zein juridiko batzuk atxiki ahal izango zaizkio fundazioari, baita fundatzaile gisa ere, betiere atxikipena sinatu ondorengo sei hilabeteetan gauzatzen baldin bada.

2.- Fundatzaile/en izaerako atxikipenak, aurrez aipatu den epearen barruan, Patronatuko kideek onartu beharko dituzte, eta horiek, Patronatuko kideek, halaber, ezarriko dituzte fundatzaile atxikiak, bere kasuan, egin beharko dituzten ekarpenak.

3.- Aurrez aurreikusitako atxikipen-epena amaitzen ez den arte, Patronatuaren eraketa etenda geratuko da, eta Fundazioko kartan izendatzen diren kideek ahalmena izango dute era markomunatuan estatutuek Patronatuari ematen dizkioten ahalmen bakaitza eta guztiak exekutatzeko.






8890706

42. artikulua.- Lagunzaile atxikiak eta babesleak.

- 1.- Fundazioaren eskritura egiletsi ondoren, fundazioari atxiki ahal izango zaizkio, lagunzaile atxiki edo babesle izaeraz, fundazioaren helburuak lortzeko jarduera edo ekintza mesedegariak gauzatzen dituzten pertsona fisikoak zein juridikoak.
- 2.- Aurreko paragrafoan aipatu diren izaeradun atxikipen-eskaerak Patronatuko kideen gehiengo osoz onartu beharko dira, eta, era berean, Patronatuak finkatuko du eskatzaileek, unean-unean, ordaindu beharko duten lagunza ekonomikoaren zenbatekoa. Lagunzaile eta babesle horiek Patronatuan parte hartu ahal izango dute, Patronatuak horrela erabakitzan baldin badu, gonbidatu gisa.

43. artikulua.- Ohorezko lagunzaileak

Patronatuak ohorezko lagunzaile izendatu ahal izango ditu fundazioaren helburuak lortzen era nabarmenean lagundi duten edo laguntzen duten pertsona fisikoak zein juridikoak.



2011ko... 2012ko
batzarraldian Udalak onartua.
Idazkariak,